



ZARAUZKO UDALA

**OSTALARITZA ETA ALKOHOLA SALTZEKO BAIMENA DUTEN  
MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK IREKI ETA IXTEKO ORDUEI  
BURUZKO ORDENANTZA  
4/1995 LEGEARI EGOKITUA**

**Sarrera**

1994ko otsailaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Ostalaritza eta alkohola saltzeko baimena duten Merkataritza establezimenduak ireki eta ixteko orduei buruzko Ordenantza argitaratu zen. Ordenantza honek Zarauzko udal mugapean, Eusko Jaurlaritzak araudi bidez ezarritako ordutegia hausteagatik, ezar daitekeen zigor-sistema arautzen du. Ordenantza hori orduan beharrezkotzat jotzeko eta honen onarpena bultzatu zuten arrazoiek iraun egiten dute gaur egun ere.

Hala ere, Eusko Legebiltzarrak onartutako 4/95 Legeak ere, azaroaren 10ekoa, Ikuskizun Publiko eta Jolas-Ihardueri buruzkoak, badu eragina alderdi honetan. Horrela, Lege honen 34 g) art.ak ordutegi araudia ez betetzea arau-hauste arintzat jotzen du, honen errepikatzea arau-hauste larritzat, edo oso larritzat ere, jo badaiteke ere. Zigorren zenbatekoari buruz zera ahalbidetzen du: Udalek 5.000.000.- pezetara arteko isunak jartzeko, eta urte batera arteko ixtea erabakitze aukera izatea.

Adierazitakoagatik, beharrezkoa da Ostalaritza eta alkohola saltzeko baimena duten Merkataritza establezimenduak ireki eta ixteko orduei buruzko Udal Ordenantza indarrean dagoen 4/95 Legeari egokitzea. Honetarako, Udalak onartu ondorendik, Zarauzko udal mugapean ondorengo araudi berezia ezarriko da:

**1. artikulua. Alkohola saltzeko baimena duten merkataritza establezimenduen ordutegia**

Udalerrian kokatzen diren mota honetako merkataritza establezimenduek ireki eta ixteko ordua goizeko 7etan eta gaueko 11etan izango dute, merkatal sektore desberdinek aipatutako tarte horren barruan izenpetuta eduki ditzaketen hitzarmenak errespetatuz.

**2 artikulua. Ostalaritza establezimenduen ordutegia**

Ostalaritzako establezimenduak ireki eta ixteko ordua Eusko Jaurlaritzak arau bidez ezartzen duena izango da; herriko edo zaindariaren jaiak, edo bestelako ospakizun orokorren bat dela eta Udalak baimendu dezakeen ordutegi bereziaren kaltetan gabe.

### 3. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak

1. Aurreko artikuluetan zehaztutako establezimenduen irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, edo baimendutako orduetatik kanpo lokal baten barruan bezeroak edo jendea egotea, **arau-hauste arintzat** joko da eta 200.000.- pezeta arteko zigorra jaso dezake.
2. 30 minutu baino luzera handiagoz eta urtebete buruan, Ordutegi araudiaren hirugarren hauspenaren ondoren, arau-haustek **arau-hauste larritzat** joko dira eta ondorengo zigorra jasoko dute, aukeran edo bat baino gehiago:
  - a) 200.001.- pezetatik 5.000.000.-ra bitarteko isuna.
  - b) Lokala ixtea urtebete arte.

Era berean Ordenantza honetan aurrikusitako ordutegia ez betetzeagatik ezarritako ixte-zigorra haustea arau-hauste larritzat joko da.

3. Arau-haustek egitea ordutegi arauak ez betetzea baino onuragarriagoa izan ez dadin arau-hauslearentzat, kasuan kasuko ezarriko den zigorrari legez kontra lortutako irabaziaren kopurua gehitu ahal izango zaio.

### 4. artikulua. Zigorren mailaketa

1. **Zigor ekonomikoak** mailakatzeko xedez, kontuan hartu beharreko beste egoera aringarri edo astungarriak ezezik, iharduera horretarako ixteko ezarrita dagoen orduaren eta dagoen Hauspen-Aktan agertzen den orduaren artean iragandako denbora hartuko da oinarrizko erreferentziatzat. Lerroaldi honetan adierazitakoa objetiboki bete ahal izateko, ondoko formulak aplikatuko dira:

**Arau-hauste arinak.  $S = H \times 5.000$ .**

Non **S** diru-zigorra den pezetetan, 200.000.- ko mugarekin; eta **H** baimendutako ixteko edo irekitzeko ordutegiaren arabera egindako arau-haustearen denbora, minututan kontatuta.

**Arau-hauste larriak.  $S = H \times 10.000 \times R$**

Non **S** diru-zigorra den pezetetan, 200.001.- ko minimoa eta 5.000.000.-ko maximoarekin; eta **H** baimendutako ixteko edo irekitzeko ordutegiaren arabera egindako arau-haustearen denbora, minututan kontatuta; eta **R** faktore gehitzailea, arau-haustek erreperkiatzeagatik aplikatuko dena. Hau indarrean jarriko da 4. arau-haustez geroztik, baldin eta 3.2 artikuluan aurrikusitako egoera gertatzen bada, eta kasu honetan 1,5 izango da bere balioa. 5. arau-hauste batean R-k 2ko balioa izango du, 6. arau-hauste batean 2,5ekoa eta horrela hurrenez hurren.

2. **Arau-hauste larrietarako** aurrikusi den **Lokalen ixtea** ezarri egingo da eta dagozkien diru-zigorrekin gehituko zaizkie 4. arau-haustez geroztik, baldin eta 3.2 artikuluan aurrikusitako egoera gertatzen bada. Zigor hauen mailaketa ere gertatzen diren egoera aringarri eta astungarriak kontuan hartuz egingo da, ondoko arauen arabera:

- a) 4. arau-haustea bi hilabete arteko lokal ixtearekin, edo ihardueraren etena edo debekuarekin zigortuko da.
  - b) 5. arau-haustea bi hilabete eta egun batetik 6 hilabetera arteko lokal ixtearekin, edo ihardueraren etena edo debekuarekin zigortuko da.
  - c) 6. arau-haustea eta ondorengoak sei hilabete eta egun batetik urtebetera arteko lokal ixtearekin, edo ihardueraren etena edo debekuarekin zigortuko da.
3. Ordenantza honetan aurrikusitako ordutegia ez betetzeagatik ezarritako **Ixte debeku zigor bat haustea** arau-haustek, hautsi den zigorrean ezarri zen epe bereko ixte, eten edo debeku zigorra jasoko dute eta espediente hartan ezarri zen diru-zigorraren bikoitzaren baliokidea izango den isuna.
  4. Baldin eta aurreko parrafoetan aurrikusitako hauspenak egingo balira bide publikoa okupatzeko eta erabiltzeko denboraldi jakin bateko baimen motaren bati dagokionean, esaterako kaseta, txosna, mahai, aulki, toldo, eta antzekoak non edari alkoholikoak saldu edo zerbitzatzaren diren, zigorrarekin batera emandako udal baimena haustea ekar lezake. Alkateak bide publikoa mota honetako instalazioekin okupatzeko baimenak ukatzerakoan, hala bada, arrazoi dezake eskatzaileak urte berean, edo aurrekoan, irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzeagatik zigorra jaso duela.

#### **5. artikulua. Zigorrak betetzea**

1. Ixte, eten edo debeku zigorrak, etenik gabe beteko dira eta zigorra jakinarazi denetik 10 egun naturalen buruan hasiko da betetzen.
2. Diru-zigorrak, honen jakinarazpena egin denetik, 15 egun naturaleko gehieneko epean ordainduko dira. Hauen exakzioa egiteko, borondatezko ordaiketa egiten ez bada, premiamenduzko administrazio-prozedura jarraituko da.
3. Ixte zigorra 6 hilabetekoa edo hau baino luzeagokoa bada, berarekin baimenaren indarraldiaren etetea ekarriko du, udaleko teknikoek lokalari eska dakizkiokeen baldintza teknikoak eta segurtasunezkoak mantendu egiten direla ziurtatzen duten artean.

#### **6. artikulua. Prozedura eta zigortzeko aginpidea**

Ordenantza honetan aurrikusitakoen arabera ireki eta erabakitzen diren espedienteak, 4/1995 Legeari jarraiki tramitatuko dira, eta hau ezean, Administrazio Publikoari aplikatu dakizkiokeen prozedura arauari jarraiki. Zigortzeko ahalmena Alkatetzak izango du.

### **Xedapen gehigarria**

1. Lehengo ordutegiari buruzko Ordenantzaren arabera, urtebeteko epea baio luzeagoko ixte zigorra ezartzea edo iharduera baimena behin betikoz kentzea erabaki zen kasuetan, jabeek, errentadunek edo baimenaren titularrak direnek, behin Ordenantza honetan zigor maximotzat jasota dagoen urtebeteko ixtea bete ondoren, berriro irekitzea eska dezakete edo, hala badagokio, iharduera baimen berria.
2. Xedapen hau aplikatu ahal izango da lokala saturatutako edo distantzia araudiren batek eragiten dion alderen batean kokatuta badago ere. Hala ere, kasu hauetan berriro irekitzea edo iharduera baimen berria Ordenantza hau indarrean sartzen den hurrengo egunetik hasita 6 hilabeteko gehieneko epean eskatu ahal izango da, eta beti ere ordutegi araudi berdina edo murrizagoa duen establezimendutarako.
3. Edozein modutan, berriro ireki baino lehen, derrigorrezkoa izango da 3. artikuluko 3.4. atalean aurrikusten den egiaztapen teknikoaren egitea.

### **Azken xedapena**

Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 15 egunetara. Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabetu egingo dira, bai 1994eko otsailaren 14ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta indarrean dagoen irekitzeko eta ixteko ordutegiari buruzko Ordenantza, eta baita Ordenantza honen aginduen aurka edo berauekin kontraesanetan dauden aurretik onartutako udal xedapenak ere.

## DATUAK

Hasierako onespena	1993ko urriaren 28an
GAOn iragarkia:	
Alegazioak aurkezteko epea:	
Behin betiko onespena	
GAOn testua:	1994ko otsailaren 14an (28 zk.)
Indarrean:	

## **ALDAKETA 1995**

(4/1995 Legearen arabera)

Hasierako onespena	1996ko maiatzaren 30ean
GAOn iragarkia:	1996ko ekainaren 7an (110 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	
Behin betiko onespena	
GAOn testua:	1996ko uztailaren 24an (zk. 143)
Indarrean:	